



Kirolean haurrak babesteko eta ondo tratatzeko gakoak

Argitalpen hau ATERPE programaren barruan dago: Athletic Clubeko Haurren Babeserako eta
Tratu Onerako Programa.

2021ean egina.

Testuaren egilea: Iñaki Alonso Athletic Clubeko Haurren Babeserako arduraduna.

Kirolean haurrak babesteko eta ondo tratatzeko gakoak

1. Kirolak haurrentzat duen garrantzia.
2. Haurrak eskubideen subjektuak dira.
3. Egungo testuingurua eta uste faltsuak.
4. Indarkeria.
5. Tratu ona.
6. Babesa eta babes-kultura kirolean.
7. Kontzientzia.
8. Erantzukizuna eta konpromisoa.
9. Lege-betebeharra.
10. Kirolean haurren aurkako indarkeria prebenitzea.
11. Babes-ordezkaria.
12. Hizkuntza itzultzea.
13. Kirola egiten duten haurren ongizate integrala.
14. Familiak eta kirola.
15. Haurren parte-hartzea.





1

"Kirola funtsezko tresna da haurtzaroaren **garapen integralerako**, ongizaterako, poztasunerako, zorientasunerako eta askatasunerako gunea izan behar baitu"

Kirolak haurrentzat duen garrantzia



Hurrek denbora gehien ematen duten hirugarren esparrua, familiaren eta hezkuntzaren ondoren.

Ezinbestekoa da kirola haurrak babestu behar dituen esparru garrantzitsutzat hartzea.

Kirolak ongizate-, poz-, zorientasun- eta askatasun-esparrua izan behar du haurrentzat.

Ezin dugu ahaztu zertarako egiten duten kirola hurrek; besteak beste:

- Ondo pasatzeko.
- Dibertitzeko.
- Lagunak egiteko.
- Euren kirol-trebetasunak hobetzeko.
- Emozionatzeko.
- Irabazten saiatzeko.

Kirola funtsezko tresna izan daiteke haurren garapen integralerako.

Tresna gisa, zuzen ala oker erabil daiteke.

Kirola zuzentzen duten erakunde publikoek, kirol-erakundeek, klubek, kirol-agintariak eta haurren kirol-jardueraren inguruan dauden helduek tresna hori behar bezala erabiltzeko erantzukizuna dute.

"Kirola funtsezko tresna da haurtzaroaren *garapen integralerako*, ongizaterako, poztasunerako, zorientasunerako eta askatasunerako gunea izan behar baitu"

Behar bezala erabiliz gero, kirolak ondorio positiboak ditu:

- Osasuna: gaixotasunak prebenitu eta ohitura osasungarriak sortzen ditu.
- Psikologikoak: autoestimua sortzen du, eta estresa kentzeko esparrua da.
- Fisikoak: giharrak eta hezurak indartzen ditu.
- Harremanekin lotuak: loturak sortzen ditu beste pertsona batzuekin, talde bateko kide izatearen sentimendua indartzen du.
- Balioak onartzea: kirola egiteak errespetua, ahalegina, sakrifizioa, erantzukizuna eta beste balio batzuk garatzen laguntzen du.




Kirolak haurrentzat duen garrantzia

2

"Haurrak **zuzenbidezko subjektuak** dira, beren eskubide eta betebeharrekin, eta beti aplikatu behar dute beren **interes gorena**, baita kirolean ere"

Haurrak eskubideen subjektuak dira



2

Haurrak **ESKUBIDEEN** **SUBJEKTUAK** dira.

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 1. artikulua honela dio: «Jaiotzatik 18 urtera arte, gizaki oro da haurra».
- Haur guztiek dute kirola egiteko eskubidea, haien ongizatea lehenesten duen giro osasuntsu eta babesgarri batean.

Haurrak eskubideen subjektuak izateak honako hau dakar berekin:

- Haurrek adinaren eta heldutasun-mailaren arabera eskuratzen dituzte euren eskubideak.
- Haurrek pixkanaka garatzen dituzte ahalmenak eta autonomia.
- Haurraren interes gorena lehenetsi behar da beti.
- Dagozkien gaietan parte hartzeko eta iritzia emateko eskubidea dute.

Baita kirolean ere.

"Haurrak zuzenbidezko subjektuak dira, beren eskubide eta betebeharrekin, eta beti aplikatu behar dute beren interes gorena, baita kirolean ere"

Haurraren interes gorena: Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 3. artikuluan jasoa. Laburbilduz:

- «Haien ongizaterako beharrezkoak diren **babesa eta zaintza** bultzatu behar dira, gurasoen, tutoreen edo zaintzaz arduratzen diren beste pertsona batzuen eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta»(entrenatzaileak eta kirol-profesionalak ere multzo horretan sar ditzakegu).
- «Haurrak zaintzeko edo babesteko ardura duten erakundeek, zerbitzuek eta establezimenduek agintari eskudunek ezarritako arauak bete behar dituzte» (bai eta, beraz, kirol-erakundeek eta kirol-klubek ere).

Lehen, premiak zituen eta babestu behar zen kolektibotzat hartzen ziren haurrak, eta premia horiei erantzun beharra zegoela uste zen. Baina haurrak eskubideen subjektuak dira: euren eskubideak eta betebeharrak dituzte. **Baita kirola egitean ere.**

Haurrak eskubideen subjektuak dira



3

"Indarkeria-egoera askok normalizatuta jarraitzen dute edo ikusezinak dira. Kirolak bere gain hartu behar du haurrak zaindu, babestu eta osorik garatzeko erantzukizuna"

Egungo testuingurua eta uste faltsuak



3

Kirolak aurrerapauso handia eman behar du haurrak babesteari eta ondo tratatzeari dagokienez.

Kirolak ez du bere gain hartu kirola egiten duten haurrak zaintzeko eta osorik garatzeko **ardura**.

Kirola egiten dutenean **soilik hartzen dira haurrak kirolaritzat**.

Haurren aurkako indarkeria-egoera asko **normalizatuta daude oraindik ere kirolean egunero**.

Indarkeria-adierazpenak ez dira kasurik larrienak soilik. **Badira txantxen, iruzkin barregarrien eta «taldea egitearen» aitzakiarekin gauzatzen diren indarkeriak.**

«**Horrela egin da beti**» **esaldia** erabiltzeari utzi behar zaio haur-kirolean. Beste modu batean egin daiteke lan, betiere, haurren eskubideak babestuz eta errespetatuz.

«**Inoiz ez da ezer gertatu**» **esaldia** erabiltzeari utzi behar zaio kirolean. Indarkeria eremu ikusezinetan dago eta, beraz, ez da ikusten.

Gainera, **kirol-jarduerarekin lotura duten helduek ez dute** indarkeriari antzemateko, hura prebenitzeko eta haren aurka jarduteko **tresnarik**.

"Indarkeria-egoera askok normalizatuta jarraitzen dute edo ikusezinak dira. Kirolak bere gain hartu behar du haurrak zaindu, babestu eta osorik garatzeko erantzukizuna"

Kirol-trebetasunak hobetzea da helburu bakarra eta funtsezkoa. Helburu garrantzitsua izanik, ez da bateraezina haurrak ondo tratatzearekin eta babestearekin.

Kirola egiten duten haur guztiek beste garapen-eremu batzuk dituzte euren bizitzan, oso garrantzitsuak, eta horiek ere pertsona integral izaten laguntzen diete: hezkuntza, familia, lagunak, bikoteak, arazoak, ametsak, ilusioak.

«**Kirolaritzat**» **soilik** hartuz gero, kirol-jardueraren inguruan gauden helduok «ahaztu» egiten dugu beste eremu horiek ere zaindu, babestu eta landu behar ditugula.

Egungo testuingurua eta uste faltsuak



4

"Indarkeriazko jokaerarik ezin da jasan, gaur **egun eta etorkizunean eragina baitu jasaten duenarengan. Kirolak **plan** bat izan behar du arriskuak atzeman, hezi, prestatu eta prebenitzeko"**

Indarkeria



4

Haurren kirolaren inguruan jarduten dugun erakunde publiko, kirol-erakunde, entrenatzaile eta helduok **bermatu egin behar dugu haurrak edozein indarkeria-motaren aurka babestuta daudela.**

Ezin da **jokabide bortizik** onartu.

Indarkeria- edo babesgabetasun-egoera orok **eragina du, gaur egun eta etorkizunean**, horrelako egoerak jasaten dituzten pertsonengan.

Gure ustez, **indarkeria oro prebeni daiteke.**

Indarkeria- eta babesgabetasun-egoerak saihesten lagundu dezaketen faktoreak daude. PLAN batean jasotako ekintza zehatzen bidez **arriskuak detektatu, hezi, prestakuntza eman eta arriskuak prebenitzeak** haurren aurkako indarkeria prebenitzen du kirolean.

Indarkeria

"Indarkeriazko jokaerarik ezin da jasan, gaur egun eta etorkizunean eragina baitu jasaten duenarengan. Kirolak plan bat izan behar du arriskuak atzeman, hezi, prestatu eta prebenitzeko"



Jokabide bortitzek ezaugarri hauek dituzte:

- Egitez edo omisioz eragindako kaltea da.
- Pertsona, talde, erakunde edo instituzio batek haur edo nerabe bati eragindako kaltea da.
- Inpaktu handia dute jokabide bortitza jasaten duen haurarengan.
- Botere-desoreka bat dago jokabide bortitza duenaren eta hura jasaten duenaren artean. Jokabide bortitzak jasaten dituzten haurrek askotariko profilak dituzte.
- Orobat, jokabide bortitzak dituzten pertsonak ere askotariko profilak dituzte.
- Indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, emozionala eta instituzionala izan daiteke.

Susmorik edo zalantzarik badugu, edo haur batek bere familiari indarkeria-egoeraren bat jasan duela esaten badio, **behar bezala erantzun behar dugu beti.**

Ezin da beste alde batera begiratu.

Erakundeen interesak ezin dira jarri babesgabetasun-egoera bat jasan duen haurraren ongizate pertsonalaren aurretik.



5

*Haurrek kirolean laguntza-, babes- eta tratu onen testuingurua aurkitu behar dute, **zoriontasun-, poztasun-iturri eta izango dena segurtasuna**"*

Tratu ona





5

Haurrak haur-kirolean ondo tratatzearen funtsezko helburuak hauek dira:

- Ongizatea sortzea.
- Haur kirolariei espazio seguru batean daudela sentiaraztea.
- Haur kirolariei espazio babesle batean daudela sentiaraztea.
- Haur kirolariei entzuten diegula eta errespetatzen ditugula sentiaraztea.

Haurrek kirolean laguntza-, babes- eta tratu onen testuingurua aurkitu behar dute, *zoriontasun-, poztasun- iturri eta izango dena segurtasuna*"

Kirolak funtsezko tresna izan behar du, kirola egiten duten haurrek garapen integrala izan dezaten:

- Fisikoa.
- Psikologikoa.
- Afektibo-sexuala.
- Soziala.
- Talde-mailakoa.
- Emozionala.

Haur-kirolean ondo tratatzea hau da:

- Zaintzea.
- Babestea.
- Maitasuna ematea.
- Laguntzea.
- Entzutea.
- Enpatikoa izatea.

Kirola egiten duten haurrek hau aurkitu behar dute kirolean:

- **Laguntzarako, babeserako eta tratu onetarako** esparru bat.
- Haurrak **babestu eta ondo tratatuko dituzten kirol-langileak** dituen leku bat.
- **Zoriona eta poza emango dizkien** eta segurtasun-iturria den toki bat.



6

*"Haurren babesari eta tratu onari dagokionez, **kultura erabat aldatu behar da**, eta, horretarako, haurrentzako kirola inguratzen duten eragile, erakunde eta pertsona guztiek parte hartu behar dute"*

Babesa eta babes-kultura kirolean



6

Haur-kirolaren munduan, **babeslea izan ez den «kultura»** bat izan da nagusi.

Kirolean haurrak babesteko eta ondo tratatzeko lanaren **helburu nagusia kultura hori aldatzea** da.

«**Kultura» aldatzeak erabateko aldaketa dakar berekin**. Ez aldaketa partzial edo formal bat soilik.

Kirolean haurrak babestea eta ondo tratatzea **GUZTION lana da**.

Babesteko eta tratu ona emateko kultura hori sortzeko, haur-kiolarekin lotura duten **eragile, erakunde eta pertsona guztiek hartu behar dute parte**.

Haurrak kirolean babesteko eta ondo tratatzeko **lan egin behar dela agerian jartzea** da lehen pausoa.

Oso garrantzitsua da lan horrekiko **sentsibilizatzea** eta zertan den **jakitea**.

Azkenik, **konpromisoa eta erantzukizuna** geure gain hartu behar ditugu.

*"Haurren babesari eta tratu onari dagokionez, **kultura erabat aldatu behar da, eta, horretarako, haurrentzako kirola inguratzen duten eragile, erakunde eta pertsona guztiek parte hartu behar dute**"*

Safeguarding hitz anglosaxoiak haurrak babesteko eta haiei tratu ona emateko kultura baten sorrera definitzen du, oro har.

Protection hitz anglosaxoia babesgabetasun- edo indarkeria-egoera bat jasan duen haurra babesteko jarduketari dagokio.

Babeseko eta tratu oneko kultura bat sortzeko lan egin behar dugu.



7

"Kirola egiten duten **helduen** %100 jabetu behar dira beren **hezkuntza-rolaz, erreferenteaz eta babesaz**, eta beren eskubideak eta ongizatea erdigunean jarri"

Kontzientzia





7

Kontzientziaz gain, profesionalak hau ere behar dute:

- Tresnak.
- Ezagutza.
- Laguntza.
- Erakundearen barruko erreferenteak.
- Erakundetik kanpoko erreferenteak.

Entrenatzaileak, monitoreak, zuzendariak baino **askoz gehiago gara.**

Kirol-jarduerarekin lotura duten heldu guzti-guztiek ohartu behar dute euren eginkizuna kirol-trebetasunak erakustea baino zabalagoa dela.

Gure eginkizun hezitzaileaz, erreferenteaz eta babesleaz jabetu behar dugu.

"Kirola egiten duten helduen %100 jabetu behar dira beren hezkuntza-rolaz, erreferenteaz eta babesaz, eta beren eskubideak eta ongizatea erdigunean jarri"



Kirol-eragile guztiek, jakinaren gainean egonez gero, **askoz ere betaurreko zabalagoak** izan ditzakete kirola egiten duen haurraren **behar guztiez jabetu eta haiei erantzuteko.**

Kontzientzia horren bidez, profesionalen **pentsamoldea aldatzea** nahi da, kirola egiten duen haurraren ongizatea dakarren guztiaz ohartu eta arduratu daitezen.

Kontziente izateak ondorio hauek ditu:

- Beste alde batera ez begiratzea, zalantzarik edo susmorik izanez gero, edo haur batek kezka baten berri ematen badu.
- Haurra eta haren ongizatea erdigunean ipintzea.
- Haurra babesik gabe utz dezaketen jokabideak saihestu eta prebenitzea.
- Kirola egiten duten haurren eskubideak bermatzea.



Kontzientzia

8

*"Haurrak babesteko eta haiei tratu ona emateko konpromiso **etiko eta legala** hartzea kirola egiten duten erakunde, klub eta pertsonentzako betebeharra da"*

Erantzukizuna eta konpromisoa



8

Kontziente izateak eta arduraz jokatzek, azkenik, **konpromiso bat** eskatzen du.

Kirolean haurrak babesteko eta ondo tratatzeko konpromisoa hartzeak betebeharr bat dakarkie erakunde, klub eta pertsonei.

Konpromiso hori bikoitza da:

- **Etikoa:** kontziente izatea eta arduraz jokatzek du ondorio.
- **Legala:** Lege-betebeharr batek ezartzen du.

"Haurrak babesteko eta haiei tratu ona emateko konpromiso etiko eta legala hartzea kirola egiten duten erakunde, klub eta pertsonentzako betebeharr da"

Haurren kirol-jardueraren inguruan dauden eragileek **ARDURATSUAK izan** behar dute. Erantzukizunez jokatzek badugu, zuzentzen dugun **kirol-taldearen ongia sustatuko dugu**, baita haur bakoitzaren eskubideak ere.

Haur-kirolaren arloan, **elkar zaintzea** ekarri behar du erantzukizunak, **kirol-, pertsona- eta harreman-mailako garapena bultzatzeko.**

Ardurarik ez badugu, gure jokabideak **eragin kaltegarria izan** dezake haurren garapenean.

Administrazio publikoek eta kirol-erakundeek (publikoek nahiz pribatuek) kontziente izan behar dute, eta arlo horretan duten erantzukizuna beren gain hartu.

Ondoren, administrazio publikoek eta kirol-erakundeek (publikoek nahiz pribatuek) **erantzukizun hori ESKATU behar diete** haur-kirolarekin lotura duten profesional guztiei.

Kirolaren munduan hurrekin **izan behar dugun konpromisoak**, funtsean, honako hauek ditu helburu:

- Ongizatea sortzea.
- Kirol-esperientzia onuragarria izatea haurraren garapen orokorrerako.
- Kirol-hobekuntza eta lehiaketa ongizatearekin –pertsonala, emozionala eta harremanen mailakoa– uztartzea.
- Kirol-jardueran haurren eskubideak errespetatzea

Erantzukizuna eta konpromisoa



9

"Haurren, administrazio publikoen, federazioen, klubuen eta kirol-erakundeen legeek haurren babesa eta tratua jaso behar dituzte beren kirol-planetan, berariazko protokoloekin, prestakuntzarekin eta zuzeneko arduradunekin"

Lege-betebeharra



9

Haur-kirola arautzen duten administrazio publikoak:

- Beren gain hartu behar dute kirola egiten duten haurrak babesteko erantzukizuna.
- Beren-beregi sartu behar dute kirol-planetan.
- Kirol-erakundeei eskatu behar diete.
- Erakunde, federazio, klub eta pertsoneri lagundu behar diete, aholkularitza eta prestakuntza egokia emanaz.

"Haurren, administrazio publikoen, federazioen, klub eta kirol-erakundeen legeek haurren babesa eta tratua jaso behar dituzte beren kirol-planetan, berriazko protokoloekin, prestakuntzarekin eta zuzeneko arduradunekin"

Federazioak:

- Haurrak babesteko eta haiei tratua emateko planak izatea.
- Haurrak babesteko arduraduna izatea.
- Beren kiroleko klubei gai hori jorra dezaten eskatzea.
- Kudeatzen dituzten prestakuntza-ekintzetan derrigorrezko prestakuntza sartzea beren kiroleko entrenatzaileentzat.
- Jarduketa-protokoloak izatea.
- Klubei aholkularitza, laguntza eta prestakuntza ematea.


Hurtzarotari buruzko legeak:

- Haurren kirol-arloko eskubideei, babesari eta tratua onari buruzko **atal espezifikoak** izan behar dituzte.
- Kirol-munduan haurren eskubideak errespetatzeko **jarduketa-esparru zehatza** deskribatu behar dute.
- Arlo horren gaineko **gutxieneko prestakuntza** eskatu behar diete haur-kirolean jarduten duten profesionalei/boluntarioei.

Klubak eta kirol-erakundeak:

- Haurrak babesteko eta haiei tratua emateko planak izatea.
- Haurrak babesteko arduraduna izatea.
- Erakundeko pertsona eta departamentu guztiei gai hori jorra dezaten eskatzea.
- Entrenatzaileei barne- eta kanpo-prestakuntza ematea.
- Jarduketa-protokoloak izatea.

Lege-betebeharra



10

*"Haurrekin kirola egiten duten pertsona/eragile guztiak prestakuntza eta tresna egokiak izan behar dituzte indarkeria-egoerak **prebenitu, detektatu eta jarduteko**"*

Kirolean haurren aurkako indarkeria prebenitzea



10

Prebenitzea

- **Haurren aurkako indarkeria oro prebeni daiteke.** Baita kirolean ere.
- Haurren aurkako indarkeria oro prebenitzen saiatu beharra dago. Baita kirolean ere.
- Prebenitzeko, **modu integralean landu** behar ditugu hainbat elementu. Horietako batean soilik jartzen badugu arreta, ez dugu lortuko haurrak babestea eta ondo tratatzea.

Jardutea

- Babesgabetasun- edo indarkeria-egoera bat agerian geratzen denean, pertsona, profesional, erakunde edo entitate gisa **behar bezala erantzun** behar dugu.
- Babesgabetasun-egoeraren bat jasan duen **haurraren ongizatea bermatzea** da lehentasuna.
- **Susmoak, zalantzak eta salaketak behar bezala konpondu behar dira.** Betiere, haurren eskubideen ikuspegitik.

Antzematea

- Kirolean ere **haurren aurkako indarkeria-egoerak sor daitezke.**
- Kirola egiten duten hurrek **hitzez adieraz dezakete beste eremu batzuetan indarkeria-egoerak jasaten ari direla.**
- Kontzientziaz, arduraz eta konpromisoaz jokatzeari gain, kirol-profesionalek **tresnak** izan behar dituzte indarkeria-egoerak **detektatzeko eta susmatzeko**, haur batek indarkeria-egoeraren bat jasanez gero jokatu ahal izateko.

"Haurrek kirola egiten duten pertsona/eragile guztiek prestakuntza eta tresna egokiak izan behar dituzte indarkeria-egoerak prebenitu, detektatu eta jarduteko"



Prestakuntza ematea

- **Prestakuntza funtsezkoa da indarkeria prebenitzeko**, baina baita indarkeria detektatzeko eta haren aurka jarduteko ere.
- Haur-kirolean jarduten duten pertsona/eragile guztiek **gutxieneko prestakuntza izan behar dute** haurrak babesteari eta ondo tratatzeari buruz.
- Prestakuntzak honelakoa izan behar du:
 - **Generikoa:** haurrak babesteko eta haiei tratatu ona emateko gutxieneko kontzeptuak.
 - **Espezifikoa:** tresna praktikoak pertsona bakoitzarentzat jardueraren sektorearen arabera; hau da, entrenatzaileentzat, zerbitzu medikoentzat, kirol-zuzendaritzarentzat eta komunikazioaz arduratzen direnentzat, besteak beste.
 - **Laguntza:** laguntza profesionalentzat, haurren babesaren eta tratatu onaren arloan ardurak hartzeko prozesuan.

Kirolean haurren aurkako indarkeria prebenitzea



11

"Haurrak babesteko eta haiei tratu ona emateko ardura duen pertsonak gidatu behar du pixkanaka babes-politika eta tratu ona ezartzen, eta kasuak prestatu, lagundu, erreferente izan eta kudeatu"

Babes-ordetzaria



"Haurrak babesteko eta haiei tratatu ona emateko ardura duen pertsonak gidatu behar du pixkanaka babes-politika eta tratatu ona ezartzen, eta kasuak prestatu, lagundu, erreferente izan eta kudeatu"

11

Erakunde guztiek izan beharko dute haurrak babesteko eta ondo tratatzeko arduraduna.

Ez da kargu formal bat izango; alegia, ez da izendatuko klubean beste funtzio batzuk dituen eta **gaiaren inguruko ez prestakuntzarik eta ez kezkarik** ez duen «edozein», espedientea betetze hutsagatik.

Babeserako eta tratatu onerako politika bat sortzeko beharrezko prestakuntza jaso behar du. Gainera, politika hori **klubean edo kirol-entitatean pixkanaka ezartzeko** lan egin behar du.

Denentzat erreferentzia izatea:

- Erakundeko departamentu eta pertsona guztiei **aholkularitza eta laguntza ematea.**
- **Kirol-erakundeko edozein pertsonari segurtasuna ematea.**
- **Erreferentzia izatea** familientzat, erakundean edo kanpoan gerta daitekeen edozein egoeratan.

Babesaren eta tratatu onaren arloko lana zuzentzea hau da:

- Erakundeko babes-politikaren **funtssezko lerroak ezartzea.**
- Babes-politika erakundeko **departamentu eta pertsona guztiei helaraztea.**
- Erakundearen hasierako egoerari buruzko **analisiaren parte hartu, hura gidatu edo zuzentzea.**

Gainera, hau egin behar du:

- **Beharrezko prestakuntzak eman,** langile guztiek beharrezko informazioa izan dezaten, hurrekin lotutako eguneroko erantzukizunetan aplikatu ahal izateko.
- **Salaketak eta susmoak kudeatzeko eta horiek ebazteko prozesuan parte hartu.**
- **Gorabehereri buruzko informazioa lortu eta erabili.**
- **Neurriak edo zehapenak proposatu,** erakundeko zuzendaritza nagusiak erabakia har dezan.

Babes-ordezkaria



12

*"Distantzia handia dago **Haurren Eskubideen eta Kirolaren eremuan** erabiltzen den **hizkuntzaren** artean, eta **erronka** eguneroko kirol-jardueran haurtzaroaren babeserako **hizkuntza itzultzea da**"*

Hizkuntza itzultzea



12

Haurrekin egunero lan egiten duten kirol-profesionalek **haurren eskubideak bermatzeko tresnak** izan behar dituzte.

Tresna horiek **kirol-hizkuntza batera** itzulita egon behar dute.

*"Distantzia handia dago **Haurren Eskubideen eta Kirolaren eremuan erabiltzen den hizkuntzaren artean, eta erronka eguneroko kirol-jardueran haurtzaroaren babeserako hizkuntza itzultzea da**"*

Hainbat hizkuntza


- **Oso hizkuntza espezifikoa erabiltzen da haurren eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenetan eta haurtzaroari buruzko lege eta dekretuetan.**
- **Kirolaren munduko hizkuntzak ere bere ezaugarriak ditu.** Batez ere, hizkuntza sinplea eta argia da.
- **Alde handia dago bi hizkuntza horien artean.**

Funtsezko erronka hizkuntzen **itzulpenarekin** dago lotuta.

Haurren babeseko hizkuntza itzuli eta eguneroko kirol-jardueran erabili behar dugu.

Aurreiritziak:

- Alde handia dago bi hizkuntzen artean, baina hori ez da dena.
- **Eremu bateko eta besteko profesionalen artean ere badago aldea.** Eskuarki, akademia, unibertsitate, instituzio eta nazioarteko erakundeetan haurren babesaren arloan lan egiten dutenak urrun egoten dira eguneroko kirol-jardueratik, eta alderantziz.
- **Aurreiritziak daude oraindik ere, eta, oro har, ez dugu bestea «gure» munduan «onartzen».**



13

"Adin goiztiarretan kirola egitearen **helburu nagusia** haurren **garapen integrala eta ongizate orokorra** da, ongizate **fisikoa, psikologikoa eta emozionala** barne"

Kirola egiten duten haurren ongizate integrala



13

"Adin goiztiarretan kirola egitearen *helburu nagusia* haurren *garapen integrala eta ongizate orokorra* da, ongizate *fisikoa, psikologikoa eta emozionala barne*"

Haurraren garapen integrala eta ongizate orokorra dira kirol-jardueraren oinarrizko helburuak adin goiztiarretan.

Kirol-garapenari soilik erreparatzea helburu mugatua eta partziala da. Gainera, errendimendua eta kirol-garapena lotuta daude haur batentzat beharrezkoak diren beste eremuekin.

Ongizate psikologikoa:

- Alderdi psikologikoarekiko ardura egokia.
- Itxaropenen maneia.
- Frustrazioari aurre egitea.
- Estresaren kontrola.
- Klubeko edo kanpoko adituengana iristeko aukera.

Ongizate emozionala:

- Esparru egokiak izatea haurrek euren emozioak adieraz ditzaten.
- **Euren emozioak adierazten laguntzea, aurreiritzirik gabe edo hurrei mugarik jarri gabe.**
- Emozioei buruzko prestakuntza klubeko edo erakundeko profesionalentzat, emozioak identifikatzen ikas dezaten.

Ongizate fisikoa:

- Kirol-instalazio egokiak bermatzea.
- Aldagelak seguruak eta babesleak direla bermatzea.
- Kirol-instalazioetara joateko eta itzultzeko bide seguruak.
- Ordu-tegi egokiak, adin-tartearen arabera.
- Lesioa izanez gero, laguntza mediko egokia.
- Gehiegizko exijentziari eta gehiegizko ahaleginari erreparatzea.

Kirola egiten duten haurren ongizate integrala



14

"Familiak **erreferentzia** dira haurrentzat; beraz, beren seme-alaben **ongizatean** lagundu, lagundu, errespetatu eta inplikatu behar dute kirola egiten"

Familiak eta kirola



14

"Familiak erreferentzia dira haurrentzat; beraz, beren seme-alaben ongizatean lagundu, lagundu, errespetatu eta inplikatu behar dute kirola egiten"

Kirol-jardueran:

- Lagundu eta aholku eman behar diegu, eta haiei laguntzeko gaudela sentitu.
- Lehiatzeko garaian, **errespetuz jokatu behar dugu** haiekin, gainerako taldekideekin, aurkariekin, entrenatzailearekin eta epailearekin.
- **Erreferenteak gara haientzat**, eta, esaten ez badute ere, gure jarreraz lotsatu daitezke.

Harremana entrenatzaileekin:

- Entrenatzaileek eta familiek **komunikazio-kanal arina izan behar dute**; horren helburu nagusia kirola egiten duen hauraren ongizatea da.
- **Kirola ezin da izan komunikazioaren xede bakarra**. Kirola egiten duen hauraren ongizatearen esparrura bideratu behar da komunikazioa.

Aukeratzea eta hastea:

- Familiek **seme-alaben erabakia errespetatu** behar dute, kirola aukeratzen dutenean.
- Prozesu horretan, **aholku eman behar dugu, guk uste dugunari buruzko argudioak eman**, baina inoiz ez inposatu.
- **Haur bati kirol bat inposatzeak porrota ekarriko du epe labur, ertain eta luzean.**

Harremana klubekin:

- Gurasook gure seme-alaben **ongizateaz arduratzeko** eskatu behar diegu klubei, arreta kirol-jardueran soilik jar ez dezaten.
- Gure seme-alabek zer maila duten edo zer kategoriatan jokatuko duten soilik pentsatu beharrean, **erakunde bakoitzak haurrak babesteko eta ondo tratatzeko lanari ekiteko zer-nolako interesa duen** ere hartu behar dugu kontuan.



15

"Haurren parte-hartzea Haurren Eskubideen Konbentzioaren **printzipio gidaria** da, eta hori gauzatzea **erronka bat da. Entzuteko gune aktiboa, enpatikoa eta errespetuzkoa izan behar da"**

Haurren parte-hartzea





15

Historikoki, haur-kirolean hurrek agindu gisa jasotzen dituzte jarraibide asko.

Haurren parte-hartzea ez da soilik haurren eskubide bat; **Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipio gidari bat** ere bada.

Erronkarik handiena aplikazio praktikoan dago. **Nola bideratzen dugu haurren parte-hartzea?**

Kirolean, **heldu arduradunen eta haur kirolarien arteko komunikazioa da tratu onaren osagaietako bat. Komunikazio horrek errespetuzkoa, arina eta enpatikoa izan behar du.**

Kirola egiten duten hurrek **entzunak izateko eskubidea dute, eta euren iritziak askatasun osoz adierazteko.** Kirola egiten duten haurren iritziak kontuan hartu behar dira.

Haurren parte-hartzea

"Haurren parte-hartzea Haurren Eskubideen Konbentzioaren *printzipio gidaria* da, eta hori gauzatzea *erronka bat da. Entzuteko gune aktiboa, enpatikoa eta errespetuzkoa izan behar da*"

Kirolaren munduan eragiten dieten erabakietan **benetako parte-hartzea** izateak hau du helburu: kirola egiten duten hurrek euren ongizateari eragiten dioten erabakiak hartzen parte hartzea.

Kirolarekin eta kirolaz kanpoko jarduerekin zerikusia duten arazo, zalantza edo kontu guztiei **behar bezala erantzun behar zaie.**


Funtsezkoa da **entzute aktiboa, enpatikoa eta errespetuzkoa** izatea. Halaber, modu berean erantzun behar zaie.

Parte-hartzea ez da predikatzen, gauzatu egiten da.

Kirolaren esparruan parte hartzeko eta entzuna izateko eskubidea egokitu egin behar da gure jardunean tratatzen ditugun haurren garapen- eta heldutasun-mailara.

Parte-hartzea ez da ikasten, bizi egiten da. Hori dela eta, **adinik txikienetatik landu behar da**, eta taldeen barne-prozesuetan normaltzat hartu.





1 Kirolak haurrentzat duen garrantzia



2 Haurrak eskubideen subjektuak dira



3 Egungo testuingurua eta uste faltsuak



4 Indarkeria



5 Tratu ona




6 Babesa eta babes-kultura kirolean




7 Kontzientzia



8 Erantzukizuna eta konpromisoa




11 Babes-ordezkaria



10 Kirolean haurren aurkako indarkeria prebenitzea

9 Lege-betebeharra



12 Hizkuntza itzultzea



13 Kirola egiten duten haurren ongizate integrala



14 Familiak eta kirola



15 Haurren parte-hartzea



Kirolean haurrak babesteko eta ondo tratatzeko gakoak




ATERPE
 HAURREN BABES GUNEA
 ÁREA DE PROTECCIÓN A LA INFANCIA